

TOLOSAN IPUSCUAK 1000 URTE

Legebiltzarreko lehendakaria, Jaurlearitzako lehendakariorde eta sailburuak, Gipuzkoako diputatu nagusia, Tolosako eta Gipuzkoako alkate, herri-ordezkarikari eta herritarrek. Egun on.

Gipuzkoaren aurrekoa, “Ipuscua”, idatzita jasotako dokumentuak 1000 urte dituela-eta etorri gara Tolosara. Altzon elkartu ginen orain hurrena eta aste honetan bertan izan dugu Bilkura Ibiltaria, Donostian. Gertaera hauek balio izaten digute gure izateaz pentsatzeko, zerk irauten duen eta zerk iraunarazten digun mendez mende.

Hiru ezaugarri berreskuratu nahi ditut bai Altzon bai Donostian esandakoak. Lehenik, berdinaletasuna. Uholdeak izan berriak zarete Tolosaldean eta Goierrin. Ez da oraingoa ikusi dugun erantzuna: elkartasuna agertu ohi da halakoetan. Ez da besterik gabe gertatzen. Beharrak estutzen gaituen une horietan agertzen da indartsu auzolana eta elkartasuna. Aldi berean, elkartasunak indartzen du herrikoak izatearen arima. Erakundeak eta herria elkarrekin lanean, herri heldu eta antolatu bati dagokion bezala. Euskal berdinaletasunari darion elkartasuna lur zahar hau beti berritzen digun balioa da.

Bestetik, Tolosa ezaguna da munduan Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketagatik. Eta abesbatzen kulturak burura dakart ahots on askok nola bat egiten duten: batetik, ez dute elkar zapaltzen, alderantziz baizik, bakoitzak du bere tokia eta eman dezake bere onena bere talentuari eta abesbatzari esker; bestetik, ahots desberdinek guztien artean jasotzen dute abesbatza ahal duten guztia, norberaren mesedetan bakarrik aritu ordez, elkarte bultzatuz, *ni eta kito* baztertu, eta hobe den *gu eta guztiok* deklinatuz.

Bigarren ezaugarria, etorkizuna izaten jarraitzeko erabakigarria dugu euskara, Tolosako “mintzo goxoa”, Orixeren hitzak erabiliz, gure herrian beste ezerk ez bezala euskaldun egiten gaituena. Gipuzkoan egin duelarik aurrerakada handiena euskarak, Euskadirentzat akuilu eta euskarri gara, eta aurrera egiten asmatu behar dugu, legeen bermearekin eta herriarekin batera, herrikide berriak ditugunak bertakotuz.

Azkenik, Altzon adierazitakoa errepikatuko dut: Gipuzkoak herri ikuspegia du eta Euskadiko lurraldea da, hala nahita. Eskubidea dugu iragan denboretako eskubide historikoak gaurkatzeko, gure burua gobernatuz bakean eta askatasunean bizitzeko.

Mirestekoa da gure aurrekoen eta herri honen nortasuna. Berezko adimenaren emaitza dugu, adimen artifizialak ordezkatu ezin eta baztertu behar ez duena. Tresnen abileziak, abilezia guztiak bezala, jakintzaren mesedetan erabiliko ditugu, baina ez gara honaino iritsi guk geuk egin beharrekoa inoren ez ezeren esku utziz. Orain ere ez. Beraz, berezko adimena beti piztuta eta lanean, nola helduok hala gazte-jendeak.

Ezagun du gure herriak herri zaharra dela eta bere altxorrak gordez berritzen jakin duela milaka urtetan. Tolosartu zen olerkari handiak, Xabier Lizardik, “Asaba Zaharren Baratza”-n azaldutako asmoa asma dezagula guk, olerkiaren edertasunarekin, mamitzen, eta *“lehenaren muinak aldatu beza / baratz zaharra baratz berri!”*

Xabier Ezeizabarrena Saenz,
Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria
Tolosa, 2025-07-05